

Hada baten heziketa



Hada baten heziketa

Jatorrizko izenburua: *L'éducation d'une fée*

Egilea: Didier van Cauwelaert

Itzultzailea: Josu Zabaleta

Argitaratze urtea: 2008

Argitaletxea: Erein

MIKEL GARMENDIA

Eleberri honetan bi istorio tartekatuko zaizkigu: batetik, Ingrid eta bere seme Raoulek, Nicolas Rockel-ekin topo egiten dutenetik harreman zoragarri bat hasiko da hirurentzat eta bereziki Raoul eta Nicolasantzat, lau urteren buruan Ingrid-ek Nicolasingandik banantzea erabakitzen baitu. Raoulek ez du amore emango, ordea, eta harremana salbatu dezakeen gauza bakarraren bila abiatzen da: hada baten bila. Esaera zaharrak dioenez, hadak, sorginak bezala, daudenik ez omen baita sinistu behar, baina ez daudenik esan ere ez. Bestetik, supermerkatu batean lan egiten duen eta Sorbonan literatura-ikasketak bukatu nahi dituen neska irakiar exiliatu baten istorioa daukagu. Bi istorioak elkar gurutzatzen dira eta batzuetan bi istorioen arteko harremana harrapatzen zail gertatzen bada ere, azkenean denak du bere zentzua. Errealitate gordina eta sentimenduak magiaren mailara eramaten ditu van Cauwelaertek eta maisu da horretan. Hala, ikaragarri ondo lortua da pertsonaien karakterizazio ez soilik lehen bistakoa baizik eta, batez ere, barrukoa, emozionala, sentimenduen mailakoa. Esan bezala, logikaz harantzago, egundoko iradokimena eta sentiberatasuna aurkituko dugu liburu osoan zehar. Iradokitze-ahalmen horren barruan orotariko printzez zipriztindurik datozkigu pasarteak bata bestearen segidan: aukera bakoitzerako egoki aukeratutako erreferentzia literarioak, gogoetak, esamoldeak etab. Guztiarekin, "collage" itxura hartzen du idazlanak eta egundoko bidaia polit batean barneratzen da hala irakurlea, hori bai, presarik gabe irakurtzekoa eta pasarte pasarte dastatzekoa den liburu honetan.

Ondo harrapatu dio doinua Josu Zabaleta itzultzaileak van Cauwelaert-en idazlan bitxi honi eta irakurketa atsegin baterako parada eskaintzen digu, euskarak berezko dituen baliabideak erabiliz eta ez lexikoan ez sintaxian batera konplexurik erakutsi gabe, hala ere. Gazteentzat irakurketa polita eta ez hain gazteontzat ere bai, denok barruan daramagun umea berrazaleratzeko parada eder eta magikoa emango baitigu *Hada baten heziketa* eleberriak.